ARKO

KIROLAK: ARRASATEN TXIRRINDULARI TALDE BERRIA

ATBk 6 urte

# Arrasate PRESS

1996ko Otsailak 9
307. zenb.



Irati eta Idoia

# Bikiak

*107 bikote daude herrian, batzuen istoriotxoak irakurgai*

# ETXE MOBEL

## MUEBLES ALTZARIAK

## LOGELETAN
espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



**Larunbat arratsaldetan zabalik!!**

Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak, garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

**BENETAN HARRIGARRIA!!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tfnoa. FAXA: 79 41 82

**ARRASATE**

# Askatasuna eta laizismoa

Erlijioaren aurkako esaldiak ateratzen zirela Getxon egin den Pintura erakusketa batean eta, Udaleko Kultura Sailak, protestak medio, kendu egin omen ditu. Arrazoia: " Denonak direnez instituzio publikoak ez erabiltzea propaganda ideologiko eta erlijiosorako". Itxuraz arrazoi jatorra dirudi, eta aspaldi-tik, gure artean ereindua eta onartua izan dena, baina, nere ustetan jokabide ezezkorra eta askatasunaren aurkakoa da.

Printzipio hori ideia berriak sartzeko, zeudenak desagertaraziz, erabiltzen den maltzurkeria da. Ez dago kultura neutrorik, ez eta irakaskuntza neutrorik. Hitzegin edo idazten dugunean, berdin artistikoki expresatzen garenean, ezin ditugu geure burua eta pentsamoldeak alde batera utzi, ez uka.

Antidemokratikoa eta manipulazioa izango da, honetan ados, instituzio publikoak era partidista batean jokatzea, ideologia eta pentsamolde zehatz batzuek erabili eta promozionatzea; baina gizartean dauden ezberdintasunei bide ematea, batez ere besteen errespetoaz eta sinatuz, hau da pertsonalki geure burua konprometituz, heldutasunaren eta askatasunaren adierazgarria da.

Kultura dominante bat zegoen Frankon garaiean eta hura ezabatu nahiean Getxoko Udaleko Kultur Sailak erabili duen argudioa saldu eta defendatu zen gure herrian erlijioa gure ikastetxe eta ikastoletatik ateratzeko, eta abar, eta abar.

Irekitasun eta benetako neutraltasunaren ordez, laizismo militantea, aurkakoa, erein, saldu eta praktikan jarri zen. Galgarria benetan herriarentzat. Laizismo-gizakoia, instituzioaren "neutraltasuna" gordeaz inoren kontra ez dihoana, desberdintasun guztien errespeto eta plataforma bihurtzen dena, benetako askatasun bide eta demokratikoa da.

Gure herriak ez daki gauzak aurrera ateratzen "etsaitasunik", eta kontrarioak sortu gabe; ez da tolerantea, ez librea. Noiz arte ezaren eta etsaitasunaren jarrera antidemokratikoa eta ez gizakoia?

**Jose Mari Astigarraga,**
**Sagarraga**

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Memesa
79 42 22

ARRASATEKO UDALA
*Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du*

*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du*

*Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du*

• **ARRASATE** PRESS •
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Beñardo Kortabarria. **Kazetariak**: Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea**: Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa**: Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa**: Goio Arana. **Kolaboratzaileak**: Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran,Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna**: Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © **ARRASATE** PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala**: Goio Arana

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

OSORIK
PUB
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

## Bakearen alde

Urtarrilaren 30ean, Gandhiren heriotzaren urtemuga izan dela eta, gure ikastetxean bakearen eguna ospatu dugu.

Gaur egun bizi dugun egoerak erreflexio sakon bat egitera eraman gaitu; hausnarketa hau egin ondoren gure baitan egiten ditugun galderarik garrantzitsuenetariko batzuk hauek izan dira: zergatik dauzkagu horrelako egoera larriak munduan? zer egin dezakegu hau aldatzeko?

Gure artean eztabaidatu ondoren eta gure inguruneanpoliki-poliki bakea lor dezagun, hauek izan dira guk hartu ditugun konpromezuak:

- Diferentziak errespetatu, fisikoak ezezik baita pertsonak ditugun iritzi ezberdinak ere.
- Biolentzia eta gorrotoa baztertu.
- Arrazakeriaren kontra jokatu.
- Askatasuna eta elkartasunaren alde lan egin.
- Besteekin lagunkide eta jasankor izan.
- Besteengan maitasuna banatu.
- Gure geletan bazterturik aurkitzen diren pertsonei laguntza eskaini.

Guztiok gure ahaleginak batzen baditugu, denon artean zerbait lortuko dugulakoan gaude.

**"La Merced" ikastetxeko 8. mailakoak**

## Sindikalismoa

Hura sindikalista da... baina, zer da sindikatu bat? galdetu zuen neskatilak.

Hauteskunde egunak badatoz eta normalean gertatzen den (gertatzen da?) bezala prentsan bi edo hiru egunez orrialde erdi edo zutaberen bat arazoei eskaintzen zaie, bai ordezkatutako enpresarialarekin, langileekin edo politikariekin. Eta horrela gertatu da urtarrilaren erdi aldera.

Sindikalista bat langileek aukeratu duten bat da, enpresarioen taldea osatzen duen ente-inmueblearengandik berez sortzen diren arazoetan parte har dezan, langileengan, sozietatearen parte izan edo ez, eragina duen arazoetan alegia.

Eta hauteskundeek zer dute zerikusirik horiekin? Ba politikoek programak aurkezten dituzte non langileen mundurako eduki jakin batzuk agertzen diren, eta langileek askatasunez aukeratu dituztenez, suposatzen da ematen dieten pisten zain daudela.

Eta bakarrik erdiak aukeratu izan balitu? nori jarraitzen dio beste erdiak? agian bildu egin beharko dira beste erdi batzuen arbitroak eta bestaldera? Horrelako zerbait.

Orain Europan gaudenez, hangoekin bat egin arte.

Eta zuk aitona zertatik ezagutzen dituzu sindikatoen istorio horiek? Kontatu didatenetik.

Ea bada guri ere zerbait azaltzen diguten!

**Joseba Costana**

### Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzaileairen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

lurrindegia perfumeria
ZARRAOA
• Estetika kabinetea
• Larruzko artikuluak
• Bitxitegia
• Opariak
Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

# Gehien eta gutxien gustatzen zaizun telebista programa?



**Antxon Garate**
**Jubilatua**
**(75 urte)**

Gutxien *Goenkale* gustatzen zait eta gehien ETBko *Berriketan* saioa. Bai, gauetan Andoni Aizpuruk ematen duena. Saio motza eta polita delako gustatzen zait.



**Fatima Errasti**
**Liburuzaina**
**(32 urte)**

Gehien gustatzen zitzaidana *Doctor en Alaska* da baina kendu egin dute. Gainontzeko gehiena ez zait gustatzen: futbola, informatiboak... horiek ez zaizkit gustatzen.



**Oskar Ramos**
**Ikaslea**
**(21 urte)**

Gehien pelikulak ikustea. Gutxien *Cristal* eta roilo horiek, bai telenobelak.



**Izaskun Ezpeleta**
**Egoitzako auxiliarra**
**(30 urte)**

*Goenkale* gehien eta kirolak gutxien. Kirolak ez ditut ikusten.



**Jose Maria Eizagirre**
**Ingeniari elektronikoa**
**(34 urte)**

Gaur egun behintzat gehien albisteak; lehiaketak, berriz, ez zaizkit gustatzen.



**Iker Maquine**
**Sukaldaria**
**(20 urte)**

Batez ere kirol programak ikustea dut gustoko. Politikari buruzko mahainguruak ez zaizkit gustatzen.



**Eider Yarza**
**Ikaslea**
**(10 urte)**

*Goenkale* da gehien gustatzen zaidana eta gutxien kirolak... edozein kirol.



**Alazne Ezkurra**
**Ikaslea**
**(11 urte)**

*Goenkale* gehien eta futbola eta horrelako gauzak gutxien. Kirola ez zait ezertxo ere gustatzen.

OPEL
TAKOLO AUTOAK
Larunbat goizetan tailerra zabalik 8etatik 12.40etara.
Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. ......79 53 00
Igualatorioa ......79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ......79 39 00
(emakumeak) ......79 44 11
Buru osasunerako zentrua ......79 90 11

**Gurutze Gorria**
Bergara ......76 55 76

**DYA**
Antzuola ......76 62 91

**Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) ......79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria......77 03 46
• Espezialitateak......77 05 78
77 12 64
Oñati ......78 08 52
Eskoriatza ......79 98 58
Aretxabaleta ......79 74 58
Aramaio ......(945) 45 51 16

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak ......45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati ......78 04 11
Bergara ......76 14 69
Arrasate ......79 14 39
Aretxabaleta ......79 10 52
Eskoriatza ......088

**Ertzaintza**
Arrasate ......79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea ......79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ......79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) ......12 01 62
Gasa ......900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ......79 12 22
P.E.S.A. ......79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**
Iturbide Egoitza......79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza ......79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**
KIUB-OMIC......79 51 55

**Monterrongo liburutegia**
Monterron......77 01 05

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Ostirala 9**
Egunez eta gauez: Estella. Bergara.
10ak arte: Irizar. Erguin.
**Larunbata 10**
Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.
10ak arte: Amezua. Santamaina.
**Igandea 11**
Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.
10ak arte: Ruiz. Maala.
**Astelehena 12**
Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.
10ak arte: Morales. San Andres.
**Asteartea 13**
Egunez eta gauez: Puy. Bergara.
10ak arte: Azkoaga. Ferrerias.
**Asteazkena 14**
Egunez eta gauez: Guallar. Bergara.
10ak arte: Español. Iturriotz.
**Osteguna 15**
Egunez eta gauez: Estella. Bergara.
10ak arte: Corcuera. Musakola.

## 9 OSTIRALA

**• ZINEA**
"Seven" 7etan eta 10etan.

**• SANTA AGEDA JAIAK GESALIBARREN**
Arratsaldeko 7etan etxafleroak eta kanpai iraulpena. 8.30etan bertso afaria Egaña eta Peñagarikano bertsolariekin Jentil Ola elkartean. Gaueko 11etan Boston taldearekin dantzaldia.

**• GESTORAREN ASANBLDA**
Asanblada Seberon arratsaldeko 7etan. Gestorak antolatuta.

**• III. PSIKOMOTRIZ PRAKTIKAKO IHARDUNALDIAK BERGARAN**
Goizeko 5etan aurkezpena. 6.15etan lehen hitzaldia haurraren Motrizitatearen ulerkuntza psikodinamikoa lemapean. Bergarako UNEDen

**• GOSEAREN AURKAKO EGUNA**

## 10 LARUNBATA

**• ZINEA**
"Seven" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**• SANTA AGEDA JAIAK GESALIBARREN**
Goizeko 11etan umeentzat jaialdia. 12etan meza. 2.30etatik iluntzeraino auzoko abesbatzaren ateraldia bere zaindariaren omenez abesteko. 10etan Rock jaialdia "La txusma" eta "Iskanbila" taldeekin.

**• PRAGAKO GANBARAKO BALLETA AMAIA ANTZOKIAN**
Praga Ganbara balletaren emanaldia Amaia antzokian gaueko 10etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

**• III. PSIKOMOTRIZ PRAKTIKAKO IHARDUNALDIA BERGARAN**
Goizeko 9.30etatik ordu bata arte mahai inguru ikastaro eta hitzaldiak Bergarako UNEDen

## 11 IGANDEA

**• ZINEA**
"Seven" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**• ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA**
Arratsaldeko 7.30etan eskualdeko manifestazioa Seberon, Plazan bukatuko da. Gestorak antolatuta. Lau arrasatear daude une honetan gose greban: Pilar Mondragon, Arantza Sasiain, Josu Mondragon eta Pako Robles.

**• SANTA AGEDA JAIAK GESALIBARREN**
Eguerdiko 12etan meza hildakoen alde. Ordu batean salda eta pintxoak nahi duten guztientzat. Arratsaldeko 4etan mus txapelketa.

**• HBren ALTERNATIBA DEMOKRATIKOA**
Euskal Herria eta Estatu Espainiarraren arteko gatazka politikoari irtenbidea emateko Alternatiba Demokratikoaren aurkezpena Amaia antzokian arratsaldeko 6etan. Hizlaria: Arnaldo Otegi. Mahai Nazionaleko kidea. Arrasateko Herri Batasunak antolatuta

**• III. PSIKOMOTRIZ PRAKTIKAKO IHARDUNALDIA BERGARAN**
Goizeko 9.30etatik ordu bata arte. Bergarako UNEDen.



### GESALIBARKO JAIAK

**Ostiraletik domeka arte jai inguruan izango dira Gesalibarko bizilagunak. Besteak beste dantzaldiak, bertso afaria, mus txapelketa eta umeentzat jolasak izamngo dira bertara hurbiltzen diren guztiak primeran pasatzeko**

### JUBILATU ETXEETAKO OHARRA

Martxoaren 30ra arte Toki Argi, Musakola, Abaroa eta Uribarri jubilatu etxeetako bazkideak euren elkartetik pasatu behar dira karnetean zigulu berria jartzeko. Epe horretan pasatu ez, eta zigulua jartzen ez duen bazkideak, ez du jubilatu etxearen zerbitzuak erabiltzeko aukerarik izango.

## 12 ASTELEHENA

**• ZINEA**
"Seven" 7etan eta 9.30etan.

**• HITZALDIA MONTERRONEN**
Gaia: "Migrazioen arrazoiak eta ondorioak" Monterronen arratsaldeko 7etan. Langile komisioak antolatuta.

**• EUSKAL HERRIA ASKATU**
Euskal herria askatu lemapean enkartelada plazan arratsaldeko 7.30etan.

## 13 ASTEARTEA

**• ZINEA**
"Seven" 7etan eta 9.30etan.

**• SENIDEEN ENKARTELADA**
Arratsaldeko 7etatik 8ak arte Seberon. Senideek antolatuta.

## 14 ASTEAZKENA

**• SAN VALENTIN EGUNA**

**• HITZALDIA S.F. XABIER IKASTOLAN**
Gaia: "Ikasteko metodoak". 7. mailako ikasleen gurasoei zuzenduta. Arratsaldeko 6etan Ferixalekuko ikastolan. S .F. Xabier ikastolak antolatuta.

**• HEZKUNTZARI BURUZKO HITZALDIA**
Gaia: "Eskola publikoaren proiektu bateratuaren eta Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren aurkezpena". Monterronen arratsaldeko 6.30etan. Arrasateko Batxilergo institutuak antolatuta.

**• HITZALDI TERTULIA OÑATIN**
Gaia: "Portugesak eta euskaldunak: nazionalismoaren topikoak eta gorabeherak". Oñatiko kultur etxean arratsaldeko 7etan. Hizlaria: Joxe Azurmendi. Laixan elkarteak antolatuta

## 15 OSTEGUNA

**• ZINEA**
"Malicia" 7etan eta 9.30etan.

**• S.F.X. IKASTOLAN HITZALDIA**
Gaia: "Zer aldatu da eskolan lege berriarekin?". Adin eskolarrean dauden ikasleen gurasoei zuzenduta. Arratsaldeko 6.30etan Erguingo jubilatuen egoitzan.

**• HEZKUNTZARI BURUZKO HITZALDIA**
Gaia: "Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren aurkezpena". Institutuko areto nagusian arratsaldeko 6.30etan. OHOko 6. eta 7. mailako ikasleei eta gurasoei zuzenduta. Arrasateko batxilergo institutuak antolatuta.

**• BULAR MINBIZIARI BURUZKO HITZALDIA**
Gaia" Bular minbizia" arratsaldeko 6.30etan Monterronen. Emakume masektomizatuak antolatuta.

**• ELKARRIREN HITZALDIA**
Gaia: Euskal herria 1996: elkarrizketarako argudioak". Arratsaldeko 7etan Udaletxeko Pleno aretoan. Hizlaria: Bittor Aierdi. Arrasateko Elkarrik antolatuta.'




### GOSEAREN AURKAKO EGUNA

**Asteburuko meza guztietan jasotzen den dirua Manos Unidas taldearentzat izango da, gosearen aurkako lana egin dezan munduan zehar. Aurtengo kanpainaren lema: *Kulturaren aniztasuna aukera berdintasuna.***

### ZEINUEN HIZKUNTZAREN IKASTAROA

Arans-Gi eskolak pertsona Gorrekin komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituztenentzat, Zeinuen hizkuntza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa otsailaren 22an hasiko da eta 20 orduko iraupena izango du. Klaseak ostegunetan emango dira arratsaldeko 6.30etatik 8.30ak arte. Izena emateko edo informazio gehiagorako zuzendu Bergarako Gorren eskolara, telefono zenbakia 76 27 03.

### EUSKAL DANTZEN IKASTAROA

*Otsailaren 14tik ekainaren 19ra, asteazkenetan 6.30etatik 7.30etara. Matrikula 1.000 pta. Plaza mugatuak. Bikote mixtoek lehentasuna izango dute. 10-14 urte bitartekoei zuzendutako ikastaroa. Gazte zerbitzuak antolatuta. Izen ematea Gazte bulegoan 77 00 65 zenbakia.*

### ERAKUSKETA MONTERRONEN

**Otsailaren 12tik 25era "Geure mundua". Proiektu solidarioari buruzko erakusketa Monterronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan eguerdiko 12etatik 2etara, arratsaldean 6etatik 8ak arte. Langile Komisioak antolatuta.**

### Atxiloketak

Joan den ostegunean, hilaren 1ean, Roberto B.S arrasatearra atxilotu zuen Ertzantzak. Ertzantzaren arabera, Erguingo eskolan gertatu zen lapurretan parte hartu zuela erakusten zuten frogak zeudelako atxilotu zuten 27 urteko gaztea. Zapatuan, epailearen aurrean deklaratu ondoren, aske utzi zuten.

Asteazken gauean, berriz, Antonio C.U. atxilotu zuen Ertzantzak epailearen aginduz. Orain dela bi urte egindako lapurreta bategatik atxilotu zuten, eta hilabete baterako Martuteneko espetxean sartu dute.

### Txetxenia mintzagai

AEDk antolatuta Gabirel Ezkurdiak, "Errusiaren hatzaparrak ulertzeko" liburuaren egileak, hitzaldia eman zuen asteartean Monterronen. 15 lagun inguru joan ziren hitzaldira eta bukaeran hainbat galdera egin zioten. Txetxeniako gatazka eragin duten arrazoiak zeintzuk diren azaltzen ahalegindu zen Ezkurdia.



### EGIk asanblada orokorra Arrasaten

Euskal Herri osotik etorritako 120 kide bildu ziren zapatuan Arrasateko batzokian, EGIren urteko asanblada egiteko. Goiz eta arratsaldez urtean egindako ekintzak gogoratu eta aurrera begira jarraitu beharrekoa hildoa finkatu zuten gazteek.

Joseba Egibar, Gipuzkoako Buru Batzarreko lehendakaria ere asanbladan izan zen, eta Euskal Herriko gaur egungo egoera zein den azaldu zien gazteei. Egibarren esanetan, EGIk freskotasuna eta sendotasuna ematen dio alderdiari.

### Sua piztu

Zapatu gauean, aurpegia estalita zeramaten gazte batzuk Kontzeziño kalean dagoen Garajes Norte-ra sartu eta sua eman zioten bertan zeuden egur batzueri. Suhiltzaileek etorri behar izan zuten sua itzaltzera. Gainera, kontzeziño kaleko edukiontzi bat ere erre zuten.

### Hilketa gaitzestu

Asteazkenean, arratsaldeko zortziretan, hainbat arrasatear bildu zen herriko plazan Fernando Mujika Herzogen hilketa gaitzesteko. Borobil bat osatu eta ohi moduan isilean egin zuten kontzentrazioa. Udaleko zinegotzi batzuk ere kontzentrazioan izan ziren.

### Haizea berriz ere

Haize bortitza izan zen asteazkenean. Haizearen eraginez zenbait arbola jausi eta beste batzuk okertuta geratu baziren ere, kalteak ez ziren larriak izan. Horrez gain, momentu batzutan argindarra joan zen herrian. Garibai etorbidean bestalde, semaforo bat erabat okertuta geratu zen.

### JAIOTZAK

- Garazi Romero Sanchez. Urtarrilaren 18an.
- Josu Aranzabal Heriz. 19an.
- Jone Godoy Gutierrez. 23an.
- Ane Maiztegi Gomez. 25ean.
- Jon Guridi Cerezo. 26an.
- Igor Zubizarreta Montero. 26an.
- Nerea Perez Cantero. 28an.

### HILDAKOAK

- Teresa Eneriz Macho. Urtarrilaren 28an. 88 urte.
- Eustaquio Heriz Azkoaga. 29an. 71 urte.
- Leocadia Miguel Villar. 29an. 74 urte.
- Jose Duinat Aginagalde. 30ean. 64 urte.
- Manuela Sopo Merchan. Otsailaren 1ean. 60 urte.





LOGSE legeak Haur-Hezkuntzarako ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen ditugu.
• Epea: Otsailaren 2tik 20ra.
• Adina:
Haur-Hezkuntzako etapa osoa;
4 hilabetetik 6 urtera arte.
Ziklo biak, 0-3 eta 3-6 urte bitartekoa errespetatuz, 0-3 apurtu barik.
• Heziketa integrala eta aurrerakoia.
• Familien beharrei egokitutako zerbitzua; abuztuan ezik urte osoan zabalik.
Matrikulatzeko zatoz bertara edo deitu telefonoz goizeko 9,30etatik arratsaldeko 5,30etara.
25 urte
1970 • 1995
umezaintza
HAUR-ESKOLA
San Andres, 8
(San Josepe auzoa)
Arrasate • Tfnoa: 79 01 02
25 urteko esperientzia haurrak hezitzen.



* Beatriz Egizabal

# Legea ingurugiroaren aurrean

San Viator ikastolan Bizigiro Osasun modulokook, aurten III. mintegia antolatu dugu "Legea ingurugiroaren aurrean" lemapean.

Aurrez, esan beharra dago, antolatu diren bi eguneko topaketei buruzko ondorio laburrak ateratzea nahiko zaila dela, bertan jasotako informazioa oso mamitsua izan baita.

Dena den, saiatu egingo gara:

Lehenengo egunean, "epailetza sistema eta ingurugiroa" izan zen ardatza eta honako ondorioak atera daitezke laburki:

- Egon badago nahikoa lege ingurugiroaren babesperako, bai Europa mailan,bai estatu, autonomi eta herri mailan ere.

- Arau horiek betetzea, behar den bezala koordinatutako administrazio publikoei dagokie, noski, guztiz beharrezkoa den herritarren laguntzarekin batera.

- Beharrezkoa da ingurugiro gaietan aurreneurriak bultzatzea, ingurugiroari kalte egin ondoren, legea betetzeko beti epaitegietara jo beharrean.

Bigarren eguneko zereginak hauek izan ziren:

*"Ingurugiro gaietan aurreneurriak bultzatu behar dira, kaltea egin ondoren epaitegietara jo beharrean"*

- Legea betearazten duten instituzio desberdinek atentatu ekologikoen aurrean betetzen duten funtzioa eta, orohar, ingurugiro esparruan egiten duten lana aztertzea.

- Beraien lana, gehienbat prebentzio aldetik doala agertu zuten, nahiz eta, lan horretan espezializaturiko sailik ez daukaten. Argi utzi zuten, aurrera eramaten diren salaketetatik gutxi batzuk izaten dutela ondorio administratibo edo judizialik ere eta horren arrazoia garapen industriala eta ingurugiroaren artean dagoen borroka dela. Era berean, gure kontzientzia ekologista oso eskasa da eta gobernu desberdinek ez dute zirkinik ere egingo gure pentsamoldea aldatzen ez dugun bitartean.

* BIZIGIRO OSASUN MODULOKO 1. MAILAKO IKASLEAK

## USTEAK USTE

**EUSKARAZ BIZITZEKO**

**Matrikulazio garaia dela eta, urtero bezala umeak "D" ereduan, hau da euskara hutsean, matrikulatzeko kanpaina izango dugu, guri, gurasooi zuzenduta.**

**Izan ere urteetako esperientziak erakutsi digu erabat euskaldun hezi nahi baitugu eredu egokiena dela, bakarra ez esatearren.**

**Dena dela, sarri asko pentsatzen dugu "D" ereduan matrikulatzeko hutsak gure helburu hori bermatuko duela, eta kalean bertan garbi ikus dezakegu (hobeto esanda, entzun dezakegu) hori ez dela horrela. Beste hainbat arlotan bezala, ikastetxeek badute euren zeregina eta eragina, baina badira kontutan hartu beharreko beste hainbat faktore, hala nola komunikabideak, adibidez, bi kate euskara hutsean (ATB, ETB 1), zenbat gaztelania hutsean?, eskolatik kanpoko hainbat ekintza, zinema, kaleko giroa bera...**

**Guzti honen aurrean ezin dugu gure haurren euskaldun hazte hori ikastetxeen esku bakarrik utzi, geure eraginak ere funtsezkoa, eta eragin konszientea izan behar du, eta agian euskararekiko daukagun jarrera praktikoa aztertzetik hasi beharko ginateke. Zer egin dezakegu gure umeak erabat euskaldun izan daitezen, ez ikastetxe barruan bakarrik euren eguneroko bizitzan baizik?... eta gu geu izan gaitezen?**

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

Elektroinjekzio Zerbitzua
LUCAS
ARRASATE KONPONKETAK
Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

# BIKAIN

Arrakastaz gainditu dugu
azterketarik zailena.
Zentroak irakaskuntzan duen esperientzia,
baloreen eskaintza,
pertsonaren hezkuntza bere osotasunean,
euskal kultura eta hizkuntzaren aldeko apostua,
aditasun pertsonalizatua,
irakaslegoaren hautaketa egokia ...
merezi izan dugun eskertza eman digute
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
Zuen seme-alabei eman diezaiokezuen
aukerarik hoberena.

*la merced*
IKASTETXEA

**HAUR HEZKUNTZA • LEHEN HEZKUNTZA • DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**

***2tik 16 urtera***

**Tfnoa. 79 27 72 • 79 20 92 Faxa**

# Etxez-etxeko bisitaldien bidez katastroa eguneratzen hasiko dira Arrasaten

Arrasateko katastroa eguneratu nahi dela eta etxebizitza, lokal, garaje, orube, eraikuntza edo antzerako jabetzaren bat dutenek eskutitz bat jasoko dute datozen egunetan.

Eskutitzean jabetzaren inguruko hainbat datu betetzea eskatzen da: ezaugarri fisikoak (etxeak zenbat m² dituen...), eta juridikoak (jabea nor den...). Eskatzen diren datuak betetzeko jabetza eskrituretan begiratu beharra dago, baina betetzeko gai ez direnek nahikoa izango dute eskrituraren kopia aurkeztearekin. Ondoren, langile batzuk etxez-etxe eskutitzak jasotzera pasako dira eta datu horiekin fitxak osatuko dituzte.



Datozen egunetan etxez-etxeko bisitaldiak egiten hasiko dira.

Gaur egun indarrean dagoen katastroa 1972an eginikoa denez hasi da Diputazioa herriz-herri erregistroa eguneratzen. Datu berriekin jabetza bakoitzaren balorea eguneratuko du Diputazioak, eta ondoren Udaleko hazienda sailera bidali. Udalek, balore horiek erabiliko dituzte zergak finkatzeko. Hala ere, urte pare bat pasatuko da balore berriak gertu egon artean. Lasai beraz katastroaren eguneratzeak zergen garestitzea dakarrela uste duzuenok.

### Padroia ere berritu

Aurten, gainera, padroia ere berritu beharko du Udalak. Udaberri inguruan, besteak beste etxe bakoitzean zenbat lagun bizi den begiratzen hasiko dira langile batzuk.

Azken padroia orain dela bost urte berritu zen, eta etxebizitza edo udalerria aldatzen dutenek horren berri eman behar badute ere, batzuk egin gabe uzten dutelako berritzen da padroia.





Erregistroa konfidentziala izango da eta ez da ezer ordaindu beharko bertan izena emateagatik.

# Elkarketa zibilen erregistroa euskarri informatikoan

Plenoak elkarketa zibilen erregistroa eratzea onartu ondoren, Udalean hasi dira elkarketa zibilen erregistroa zelan egin pentsatzen.

Erregistroan izena emateko arauak finkatu barik badaude ere, erabakita dago elkarketak ez direla liburu baten erregistratutako. Datuak euskarri informatikoan sartuko dira, eta orain programa informatikoa egituratzen eta zein datu sartu zehazten ari dira. Hamabost egun barru nahi duten bikoteek erregistroan apuntatzeko aukera izango dute; denbora tarte horretan programa eta arauak finkatuta eta Gipuzkoako aldizkari ofizialean erregistroaren eraketa argitaratuta egotea espero da eta. Dagoeneko bikote batzuk hurbildu dira Udalera erregistroan izena ematera, baina gertu egon arte itxarotea eskatu zaie.

Joseba Ugalde, EBko zinegotziaren berbetan, "beharrezkoa da kode zibila aldatzea, bestela erregistroan izena ematen dutenek ez dute besteek adina eskubide izango. Hala ere erregistroa eratzeak, jendea sentsibilizatzeko balioko du". Ugalderen berbetan, bikote batzuk eskatu diete erregistroa sortzea baina ez dute uste jende askok emango duenik izena, oraindik gizartean gaizki ikusita dago eta.

## Ur eta zabor tasa

1995eko laugarren hiruhilabeteko ur eta zabor tasaren ordainagiriak, martxoaren 22a baino lehen ordaindu beharko dira borondatezko epean. Epe hori pasatutakoan %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

## Emakumeendako ikastaroa hasi

Astelehenean hasi zen Udalaren emakume sailak antolatu duen ikastaroa. 16 emakumek egin zuten izenematea baina mugatua denez 12k hasi dute ikastaroa.

Nekane Plazaola, gizarte laguntzailea ari da emakumeendako prestakuntza eta lanbide ikastaroa ematen, eta apirilaren erdialdean bukatuko da.

## Martxoaren 8rako ekintzak

Antolatuta daude emakumeen egunerako ekintzak. Antzerkia, filmea, erakusketa eta beste hainbat ekintza izango dira martxoaren 8an. Udalak onartu du egitaraua eta baita aurrekontua ere, 553.000 pezetakoa.






Hezibideren datuek erakusten dutenez, Deba Garaian gero eta ikasle gutxiago dago.

# Euskaraz matrikulatzearen aldeko kanpaina hasi da

Haurrak eskoletan matrikulatzeko epea zabalik dagoenez, umeak D ereduan edo murgiltze ereduan matrikulatzearen aldeko kanpaina hasi du Arrasateko Udalak. Orain arte eskari hori eginez bi urteko umeen gurasoei gutuna bidali bazaie ere, aurten 8.000 diptiko banatuko dira herri guztian.

Hezibide elkarteak 95-96 ikasturteari buruzko datuak kaleratu ditu astean. Azken urteotan gertatu den bezala, ikasleen kopurua gutxituz doala erakusten dute datuek. Gaur egun Deba garaian, 2 eta 14 urte bitartean, 7.240 ikasle daude eta orain dela hamar urte 11.506 ikasle zeuden. Arrasaten ere hamar urteren buruan erdira jeitsi da ikasle kopurua, eta gaur egun 2.626 ikasle daude. Unibertsitatean dena den azken hamar urteotan ikasle kopurua asko igo da, eta ikasle gehienek arlo teknikoko ikasketak egitea erabakitzen dute.

Bi urterekin eskolan hasten diren ikasleak gero eta gehiago direla ere erakusten du hezibideren txostenak. Orain dela bi urte 179 haur jaio ziren Arrasaten eta bederatzi kenduta, gainontzekoak eskolan hasi dira. Bukatzeko, A ereduaren kaltetan ikasle gehienek euskaraz ikasten dutela aipatzen da.

## Diru bilketa

Urtero egiten den bezala, Manos Unidas taldearendako izango da zapatuan eta domekan mezetan batuko den dirua. Iaz Gipuzkoa osoan 126 milioi batu ziren Manos Unidasendako eta Arrasaten lau milioi. Mezetan batzen den diruaz gain, jendeak donatiboak ere ematen ditu.

## Lau pabilioi Mugarritten

Mugarritte inguruan lau pabilioi eraikitzeko baimena eman du Udalak. Baimena lortuta, hamabost egun barru pabilioiak erakitzen hasiko dira. Pabilioi bakoitzak 35x10 m²ko neurria izango du.

## Anbotoste tabernari abisua

Anbotoste tabernan onartutakoa baino zarata handiagoa egoten dela eta, Udalak zarata gutxitzeko agindua eman dio tabernari. Bizilagun baten eskariz orain dela gutxi zarataren neurketa egin zen, eta emaitzek zarata handiegia egoten dela erakutsi dute. Zarata gutxitzen ez badute, Udalak neurriak hartuko ditu.





Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24




Kalitate gorena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

# Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Hamalaugarren ihardunaldia.*
- ***Protagonistak:*** *Asier Otaduy eta Jose Mari Obregon.*
- ***Taldeen aurkezpena:*** *Txeyenes, Irati STS, Betrayer eta Insert Coin.*




**Lehen fasea bukatzekotan dagoen honetan gero eta garbiago ikusten dira hurrengo fasera sailkatzeko aukera duten taldeen izenak. Multzo bakoitzeko hiru lehenak matematikoki sailkatuta daudela esan daiteke. Falta diren hiru partidutan, 7. eta 8. tokiak egongo dira jokuan. Beraz talde batzuentzat hil ala biziko neurketak izango dira.**


• Txitxinpe •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Monte
taberna
Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

ARRASATE
HOTELA
Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

IBARRA
Garajea S.L.
EBRO
NISSAN
Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

## Sailkapenak

### A taldea

| | PARTIDUAK Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | GOLAK Alde | Aurk. | PUNT. Guzt. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Frantziskanner | 14 | 11 | 2 | 1 | 69 | 37 | **24** |
| Orlando piratas | 14 | 12 | 0 | 2 | 84 | 38 | **24** |
| Argi ibili | 14 | 10 | 1 | 3 | 98 | 34 | **21** |
| Sokoakoak | 14 | 9 | 2 | 3 | 85 | 47 | **20** |
| Arrasate Kirolak | 14 | 9 | 2 | 3 | 44 | 48 | **20** |
| Kamasutra | 14 | 8 | 3 | 3 | 33 | 32 | **19** |
| Totem | 14 | 8 | 2 | 4 | 68 | 45 | **18** |
| D.A Iriztu | 14 | 8 | 1 | 5 | 74 | 47 | **17** |
| Sortu Informatika | 14 | 7 | 3 | 4 | 65 | 60 | **17** |
| Jotakabau | 14 | 6 | 3 | 5 | 56 | 43 | **15** |
| Kakajauri | 14 | 4 | 2 | 6 | 44 | 42 | **14** |
| Bukanak | 14 | 5 | 2 | 7 | 63 | 49 | **12** |
| Uglys Txinato | 14 | 2 | 4 | 8 | 40 | 67 | **8** |
| Gaztetxokoa | 14 | 3 | 0 | 11 | 34 | 105 | **6** |
| Gualtrapas | 14 | 3 | 0 | 11 | 43 | 85 | **6** |
| Alealeee | 14 | 2 | 1 | 11 | 39 | 100 | **5** |
| Toss Tehaman | 14 | 2 | 1 | 11 | 20 | 91 | **5** |
| Tronkoteak | 14 | 0 | 1 | 13 | 2 | 19 | **1** |

### B taldea

| | PARTIDUAK Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | GOLAK Alde | Aurk. | PUNT. Guzt. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fosforos | 14 | 12 | 1 | 1 | 72 | 38 | **25** |
| Txeyenex | 14 | 12 | 1 | 1 | 63 | 20 | **25** |
| Adelaida haizea | 14 | 10 | 1 | 3 | 73 | 26 | **21** |
| AC SUrcos | 14 | 9 | 1 | 4 | 53 | 42 | **19** |
| Hirei | 14 | 9 | 0 | 5 | 56 | 36 | **18** |
| Okoretegi Taberna | 14 | 8 | 2 | 4 | 52 | 24 | **18** |
| DKB | 14 | 9 | 0 | 5 | 56 | 44 | **18** |
| Los Heredia | 14 | 8 | 2 | 1 | 36 | 29 | **18** |
| Lorategi | 14 | 8 | 1 | 5 | 41 | 36 | **17** |
| Ojo Avisore | 14 | 8 | 3 | 3 | 51 | 46 | **15** |
| 6º Proiektua | 14 | 6 | 2 | 6 | 36 | 38 | **14** |
| Altza Porru | 14 | 4 | 1 | 9 | 30 | 41 | **9** |
| Fraguel gol | 14 | 4 | 1 | 9 | 35 | 51 | **9** |
| Aizpun Blla | 14 | 3 | 2 | 9 | 16 | 31 | **8** |
| Kopyprest | 14 | 3 | 1 | 10 | 33 | 86 | **7** |
| Kirten Tropel | 14 | 2 | 0 | 12 | 21 | 61 | **4** |
| Berango Sukaldeak | 14 | 2 | 0 | 12 | 31 | 47 | **4** |
| Los Dalton | 14 | 1 | 1 | 12 | 40 | 92 | **3** |

### D taldea

| | PARTIDUAK Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | GOLAK Alde | Aurk. | PUNT. Guzt. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A ti que te importa | 14 | 12 | 1 | 1 | 62 | 36 | **25** |
| Irati STS | 14 | 11 | 0 | 3 | 77 | 32 | **22** |
| Lautherbrunner | 14 | 10 | 2 | 2 | 84 | 45 | **22** |
| Anbotoste KT | 14 | 9 | 2 | 3 | 52 | 29 | **20** |
| Trikiti | 14 | 8 | 3 | 3 | 54 | 27 | **19** |
| Nuevo Taberna | 14 | 8 | 3 | 3 | 74 | 40 | **19** |
| Betrayer | 14 | 9 | 1 | 4 | 60 | 41 | **19** |
| Ganbelas | 14 | 7 | 3 | 4 | 49 | 43 | **17** |
| Insert Coin | 14 | 8 | 0 | 6 | 61 | 48 | **16** |
| Los Dimy | 14 | 8 | 3 | 3 | 34 | 37 | **15** |
| Borrock Roll | 14 | 7 | 0 | 7 | 54 | 48 | **14** |
| No Comment | 14 | 4 | 0 | 10 | 37 | 61 | **8** |
| Arrasate Zoo | 14 | 3 | 2 | 9 | 33 | 51 | **8** |
| HMKL | 14 | 3 | 2 | 9 | 39 | 80 | **8** |
| Potrosorri | 14 | 2 | 3 | 9 | 33 | 48 | **7** |
| Elisabeth | 14 | 2 | 3 | 9 | 25 | 55 | **7** |
| Txarokis | 14 | 1 | 1 | 12 | 33 | 71 | **3** |
| Const Fercon | 14 | 1 | 1 | 12 | 36 | 109 | **3** |

### E taldea

| | PARTIDUAK Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | GOLAK Alde | Aurk. | PUNT. Guzt. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aurrera Bolie | 14 | 11 | 2 | 1 | 62 | 33 | **24** |
| Cerv Leintz | 14 | 10 | 2 | 2 | 56 | 24 | **22** |
| Pub People | 14 | 11 | 0 | 3 | 89 | 43 | **22** |
| MSM Ing. Integral | 14 | 8 | 2 | 4 | 65 | 27 | **18** |
| Artzakos Udalaitz | 14 | 7 | 3 | 4 | 47 | 36 | **17** |
| Zotz Motz | 14 | 8 | 1 | 5 | 52 | 42 | **17** |
| Danok Lagun | 14 | 7 | 3 | 4 | 50 | 41 | **17** |
| Koka Juniors | 14 | 8 | 0 | 6 | 51 | 44 | **16** |
| Perrahotsa | 14 | 8 | 0 | 6 | 42 | 40 | **16** |
| Pepelus | 14 | 6 | 1 | 7 | 50 | 53 | **13** |
| Petroleros | 14 | 5 | 3 | 6 | 36 | 49 | **13** |
| Exc Lete | 14 | 6 | 0 | 8 | 47 | 54 | **12** |
| Leya | 14 | 4 | 3 | 7 | 36 | 43 | **11** |
| Ke Oxtias | 14 | 5 | 0 | 9 | 51 | 53 | **10** |
| Resakas | 14 | 3 | 1 | 10 | 21 | 57 | **7** |
| Cartonajes Igamo | 14 | 3 | 1 | 10 | 48 | 66 | **7** |
| Kriskibalda | 14 | 3 | 0 | 11 | 38 | 64 | **6** |
| Baneuko | 14 | 2 | 0 | 12 | 36 | 98 | **6** |

## Emaitzak

### A Taldea

Kakajauri 3 - jotakabau 1
Arrasate Kirolak 1 - Toss Tehaman 0
Bukanak 4 - Orlando Piratas 5
Sortu Informatika 1 - Argi Ibili 8
Gaztetxokoa 3 - Totem 5
D.A Iriztu 6 - Gualtrapas 4
Tronkoteak 0 - Sokoakoak 1
Frantziskanner 6 - Uglys Txinato 5

### B Taldea

Los heredia 1 - Altza Porru 0
AC Surcos 4 - Fraguel Gol 3
Berando Suk. 4 - Txeyenex 5
Hirei 6 - Ojo Avisore 3
Aizpun Bila 0 - Kopyprest 1
Adelaida Haizea 9 - Kirten Tropel 1
Foforos 3 - Okoretegi Taberna 1
Lorategi 4 - 6º Proiektua 1
DKB 10 - Los Dalton 5

### D Taldea

Exc Lete 6 - Baneuko 3
Pub People 2 - MSM Ing. Int. 10
Zotz Motz 1 - Pepelus 3
Aurrera Bolia 4 - Resakas 2
Petroleros 6 - Artzankos Udalaitz 4
Danok Lagun 4 - Leya 2
Cartonajes Igamo 1 - Cerve Leintz 3
Ke Oxtias 5 - Perrahotsa 1
Kriskibalda 0 - Koka Juniors 1

### E Taldea

Const Fercon 4 - HMKL 5
No Comment 7 - Nuevo taberna 6
Insert Coin 1 - Betrayer 2
Potrosorri 3 - Anbotoste 3
Los Dimy 2 - Borrock Roll 3
Ganbelas 2 - Irati STS 9
Elisabeth 1 - Txarokis 0
A ti que te importa 5 - Arrasate Zoo 3
Lautherbrunnen 3 - Trikiti 3

## Hurrengo partiduak

**15. ihardunaldia**

**Larunbata 10**
**Zaldibar**

8.50 Resakas - Danok Lagun
10.00 DKB- Okoretegi Taberna
11.00 Anbotoste - Genbelas
12.00 Orlando Piratas - Jotakabau
13.00 Hirei - Kirten Tropel
14.00 Los Dimy - Insert Coin
15.00 Foforos - 6º Proiektua
16.00 Arrasate Kirolak - totem
17.00 Elisabeth - Arrasate Zoo
18.00 Cjo Avisore - Adelaida haizea
19.00 Leya - Aurrera Bolie

**Iturripe A**

12.00 Cartonajes Igamo - Perrahotsa
13.00 Kakajauri - Uglys Txinato
14.00 Fraguel gol - Lorategi
15.00 Gualtrapas - Sortu Informatika
16.00 Irati STS - Potrosorri
17.00 Argi Ibili - D.A Iriztu
18.00 Nuevo taberna - A ti que te importa
19.00 MSM Ingenieria Int. - Ke Oxtias

**Iturripe B**

13.00 Betrayer - HMKL
14.00 Exc Lete - Koka Juniors
15.00 No Comment - Borrock Roll
16.00 Kriskibalda - Cerv Leintz
17.00 Gaztetxokoa - Bukanak
18.00 Petroleros - Zotz Motz
19.00 Los heredia - Los Dalton

**Igandea 11**
**Zaldibar**

8.50 Const Fercon - Trikiti
10.00 Pub People - Artzankos Udalaitz
11.00 Ac Surcos - Kopyprest
12.00 Kamasutra - Sokoakoak
13.00 Pub People - Baneuko


HI, BADAKIK AEDK ARRASATEKO HIKARI BURUZKO IKASTARUE ANTOLATU DAUELA ??
ARRASATEKO HIKA!! ETA NUN ERAKUTSI BEHAR JONE BA HORI ??
ASTEBURU BATETARAKO BARNETEGIXE MONTATU JUEK BASERRI BATEN MARTXOAREN 9 eta 10erako
BASERRI BATEN ? BA NI GUSTORA JUANGO NITZAKEN DESINTOXI_ KAZIO BAT EGITERA. ERREKA HONETATIK URTEN ETA HIKA APUR BAT IKESTERA
BAI ! MONDRAUEN BATI BAINO GEHIXAU_ RI KOMENI JAKOK HORI
NORBAIT EZAUKETAN BADOK ESAIOK INFORMAZINO GEHIXAUREKO AED-ra JOATEKO
TA HOLA ARRATOION EXISTIEK ULERTZEN HASTEN DIEN
IZEN EMATEA 3000 PEZETA PENSINO OSUE
BAI PREZIO HORREKIN EZ DON GUPETAKO SOBRA HAUNDIRIK EGONGO
ARABAKO OTAZA ATERPETXEAN
IRAKASLE NATIBUEK
LEHENGUSU PATATERUEN ONDUEN
IKASTARO PRAKTIKOA BARNETEGI ERARA ANTOLATUA
HAU DA SALTZAILIE HAU
EZ GALDU AUKERA HAU
EZ DON HAN KATURIK EGONGO EH ??
© XaGUZAR MCMXCVI
LAGUNTZAILE
AEK
Udal Euskaltegia
ANTOLATZAILE
AED

## Protagonista

Asier Otaduy
**Insert Coin**



**— Zer moduz doa lehen fasea?**

— Nahiko ondo, iaz baino hobeto. Bigarren fasera sailkatzeko aukera ere badugu, beraz zorte apur batekin sar gaitezke.

**— Geratzen zaizkizuen neurketak nola ikusten dituzu?**

— Lau partidu falta dira lehen fasea bukatzeko. Horietatik pare bat gogor samarrak izan daitezke. Hala ere, bateren bat irabazteko itxaropena badugu.

**— Zuen helburua ondo pasatzea edo irabaztea da?**

— Ni kirola egin eta ondo pasatzera nator. Galtzen badugu normalean ez gara haserretzen. Hala ere, esan behar dut abisu bat jaso genuela iskanbila sortzeagatik.

**— Koka Juniors eta Cerveceria Leintz taldeak kanporatu zituzten hasiera batean, orain hiru puntu kendu dizkiete, zer iruditzen zaizu zigorra?**

— Antolakuntzak taldeak kanporatzea erabakitzen badu, erabakiari eutsi egin behar dio, ez dakit zergatik aldatu den zigorra. Iaz ere beste talde batzuk kanporatu zituzten eta ez zuten berriz jokatzeko aukerarik izan. Taldeek zigorrak onartzen jakin behar dute, azkenean eurak dira arazoak sortzen dituztenak.

**— Antolatzaileek hartzen dituzten neurriak ondo daude?**

— Bai ondo daude. Bestela partiduak gehiegi gogortzen dira eta lesio mordoa izaten da. Beraz, joku gogorra baretzeko horrelako neurriak ondo daude eta hartu beharrekoak dira.

## Protagonista

Jose Mari Obregon
**Betrayer**




**— Bigarren fasera sailkatzeko aukerarik bai?**

— Sailkatzeko justu justu ibiliko gara. Azken partiduak oso garrantzitsuak dira guretzat. Dena dela, talde sendoen kontra jokatu dugu. Geratzen zaizkigunak itxuraz, erraz aurrera ateratzeko modukoak izan daitezke.

**– Entrenatzen duzue?**

– Ez, partidu egunean elkartzen gara ahalik eta ondoen pasatzeko asmoz.

**— Koka Juniors eta Cerveceria leintz taldeei gertatutakoa ondo deritzozu?**

– Talde osoa botatzea ez dut ondo ikusten. Zigorra bronka sortu duten jokalariek jaso beharko lukete, ez talde osoak, batzuk ez dute errurik eta. Beharbada antolakuntzakoak pasatu egin dira zigorra ezartzean

**– Joku gogorra dagoenean zein neurri hartu beharko litzateke?**

– Neurketa gogor jarriko balitz iskanbila sortzen ari diren jokalariak bota beharko lirateke, nolabait neurketa berriro kontrolpean izateko.

## Labur

**■ KANPORATUTA.**
**Toss Tehaman taldeak ez du txapelketan jarraitzeko aukerarik izango. Zapatuan ez zen neurketara aurkeztu eta kanporatu egin dute.**

**■ SAILKATUTAKO TALDEAK.**
**A multzoan matematikoki bi talde dagoeneko sailkatuta daude: Frantziskanner eta Orlando Piratas. Biek 24 puntu dituzte. B multzoan Fosforos eta Txeyenex 25 punturekin. D taldean A ti que te importa, Irati STS eta Lautherbrunen. Azken multzoan berriz, Aurrera Bolie eta Pub people.**

**■ GOMENDAGARRIAK**
**Zapatuan bi neurketa interesgarri izango dira Zaldibarren. 12etan Orlando Piratas eta Jotakabau taldeen arteko lehia. 4etan Arrasate Kirolak eta Totem eta 7etan Leya Aurrera Bolie Iturripen arratsaldeko 6etan Nuevo taberna eta A ti que te importa. Domekan beste bi partidu. 10etan Pub People Artzankos Udalaitz eta 12etan Kamasutra Sokoakoak.Ihardunaldiko neurketa onenak izan daitezke.**

•ARTEA•
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE




beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Txeyenex



Irati STS



Betrayer



Insert Coin





Maila guztiak.
EGA eta
ALFABETATZE.
GURASOENTZAT
KLASE BEREZIAK

INFORMAZIOA
ETA MATRIKULA
ERDU-AEK
EUSKALTEGIAN

Matrikula epea:
otsailaren 16a arte.

aek

Garibai Kalea, 14- 3. • Tfnoa: 77 03 69

Udalaren dirulaguntzaz.

# ARRASATEKO IKAT

## Dohaineko hezkuntza, ka

## integratzailea eta eusk



PEDAGO A
AURRERTU
BATG

MATRIKULAEA;
otsailaren 1aurre

INFORMAZEHIAG
Tfnoak:
ERGUIN 7 74
MUSAK 79 04
S. ANDR 9 00
INSTITU 79 4

- Haur Hezkuntza (2-6 urte)
- Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

Ereduak: "D" eta Murgiltze

S. Andres H. I. – Erguin H. I – Musakola H. I.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Ereduak: "D" eta "B"

Institutuan



# ATETXE PUBLIKOAK

atatezkoa,
skilduna

## 2 urtetik 19urtera arte

GOI METODO
ERTUENEKIN
ATGINEZ

KULEA;
ren laurrera

MAZEHIAGORAKO:
:
GUIN 7 74
SAKO 79 04 49
NDR 9 00 44
TITU 79 44 47





- LOGSE Batxilergoak
- I. E. E. (R. E. M.) Lehen Zikloa
- B. B. B. (B. U. P.) Lehen eta Bigarren Mailan

Ereduak: "D" eta "A"

Institutuan



Ana Martini abenduaren 89an zotzak erabiliz etxe bat egitea bururatu zitzaion. Hasi tontamentian hasi zen baina bere lana gero eta itxura hobea hartuz zihoala ikusiz, bukatu arte ez zuela etsiko pentsatu zuen. Oraindik ez du bukatu eta berak dionez gutxienez beste 6 urte beharko ditu. Dena dela, oso pozik dago egindako lanarekin nahiz eta pazientzia handia behar dela aitortu. Gaur arte 35.660 zotz erabili ditu.



Almen ikastolako **Tasoc moduloko ikasleak** Arrasate Press eta ATB ikustera etorri ziren ostiralean. Ikasleek arretaz begiratu zituzten bertako tresna guztiak eta egin zizkiguten galdera guztiei erantzuten saiatu ginen. Behin bisita bukatuta dotore dotore jarri ziren argazkia ateratzeko.



**Santa Ageda bezpera** baserriz baserri eta kalean zehar kantuan eta diru eskean ibiltzeko eguna da. Domekan 60 lagun elkartu ziren auzoz auzo Santa Ageda kantuak abesteko gogoz. Goiza eta arratsaldea eginbehar horretan igaro ondoren, iluntzean Udalpen elkartu ziren afari goxoa jateko. Santa Ageda bezpera aitzaki hartuta primeran pasa zuten kantariek.



Uribe Auzoko Gizarte Aretoan **"Gazteen 1. Mus Txapelketa"** antolatu zen urtarrilaren 29an. Bikote ugarik hartu zuen parte eta guztien artean bat izan zen onena. Txapelketa Andoni Solupe eta Beñat Larrañagak eskuratu zuten. Bigarren tokian Mikel Viguera eta Ander Alvaro sailkatu ziren. Zorionak!



**Argazkian duzuen kotxea *Seat 1.500* markakoa da. Normalean horrelako kotxeak saldu egiten dira zaharrak direlako, baina Jabi Aritzabaleta arrasatearrak erosi egin du. Kotxeak 30 urte ditu, Madril matrikula du eta hain zaharra denez, ez du letrarik. Kapritxo polita *Seat 1.500* gorri gorri hori. Ea zenbat irauten dion!**

Mª Luisa Ozaetak zaintzen du argazkian duzuen laranja arbola. **Aurten 20 laranja eman ditu** Garagartzako Abarrategi Goikoa baserrian dagoen 6 urteko zuhaitzak. Mª Luisak errege egunean jaso zituen fruituak. Orain laranja arbola plastiko batekin dago estalita, izotzak kalte handia egiten dio eta. "Anena" izenaz ezagutzen den baserriko arbola horretako fruituak ez dira nolanahikoak, bertakoek esan digutenez laranja benetan gozoak ematen ditu. Horrela izanda, probatzera joan beharko dugu!



## IZEN PROPIOAK

● Al-Andalus Kultur elkarteak zuzendaritza batzordea berritzeko bazkideen batzar orokorra egin du. Batzar horretan lau lagun berraukeratuak izan ziren: **Rafael Gomez** presidentea, **Rafael Raya** presidente ordea, **Sebastian Lozano** kultur saileko idazkaria eta **Jose Gomez** ekonomia saileko arduraduna. Beste lau berriak dira zuzendaritza batzordean: **Fabio Garcia** kultur saileko arduraduna,. **Rafael Mesa** kultur saileko liburutegi eta kirolen arduraduna, **Emilio Ubeda,** kultur saileko elkarteekin harremanen arduraduna eta Angel Del Fresno, ekonomia saileko diruzaina.

● Foru aldundiaren ekimenez herriko katastroa berrikusiko da. Lan hori egingo duen Donostiako IDOn enpresak bost arrasatear kontratatu ditu lan hori egiteko. **Rafael Jauregi, Miren Ezkurra, Elena Diaz, Beatriz Misol** eta **Igone Lezeta.**

**ARGI PLASTIC**

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta**
**Serrano Doktorea**

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lilí, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

# Arrasate Txirrindulari Talde berria pedalei eragiteko gertu

Arrasateko txirrindulari elkarteak afizionatu mailako talde berria aurkeztu zuen ostiralean. Deba Garaiko azken talde afizionatua duela lau urte desagertu zen diru arazoak zirela eta. Dorletako Ama eskolaren baitan zegoen Caldereria San Pedro izeneko afizionatu mailako taldea.

Azken urteetan Arrasateko txirrindulari elkartekoek berriro beste talde bat sortzeko premia ikusi dute. Izan ere, Dorletako Ama eskolan 16 urtera arte ibili daitezke txirrindulariek. Behin adin horretara helduta bi aukera bakarrik daude: txirrindularitza utzi edo beste talde batera joan. Azken aukera hori lortu ahal izateko, aurreko urteotan nolabaiteko maila erakutsi behar dute txirrindulariek.Gauzak horrela, kirolari asko txirrindularitza uztera behartuta daude.

Arazo hori konpondu guran, Arrasateko txirrindulari elkarteak ahalegin berezia egin du afizionatu mailako taldea sortzeko. Dorletako Ama taldetik irteten diren txirrindulariek talde berri horretan sartzeko aukera izango dute, antolatzaileen beste helburuetariko bat Deba Garaiko txirrindulariek osatutako taldea osatzea da eta.

Lehen urterako kirol mailan ez dute erronka zehatzik ezarri. Kategoria ezagutu eta taldea sendotzen saiatuko dira. Hasteko bost milioiko aurrekontua izango dute. Dirutza hori lortzeko ate ugari jo badute ere, emaitzak ez dira nahi bestekoak izan. Beraz, txirrindularitza maite duten jarraitzaileei ahal duten moduan laguntzeko eskatu nahi diete partaideek. Txirrindulariek bestalde, taldea sendotu eta indartu arte ez dute diru saririk jasoko. Aurrerantzean taldeko ekonomia hobetuko balitz ordainduko litzaieke.

### Txirrindulari Taldeko partaideak

**Zuzendaria** : Josu Estevez
**Bigarren zuzendaria**: Eneko Garai
**Txirrindulariak** Oscar Askazibar- Elgeta
Oscar Estevez - Arrasate
Gorka Malgañon - Arrasate
Roberto Fraile -Aretxabaleta
Iban Sastre - Aretxabaleta
J. Angel San Migel - Aretxabaleta
Jon Aperribai - Arrasate
Xabier Lizaso - Usurbil
Aitor Larrea - Antzuola
Enrike Dieguez - Getxo
Iagoba Arranz - Bilbo
Jon Azkorra - Getxo
Roberto Cuartero - Lasarte
J. Migel Benedited - Andoain
Sergio Frutos - Eskoriatza
Felix Zugasti - Arrasate

A. T. E.

# Munduko karate txapelduna Arrasaten

Jose Manuel Egea, kumiteko munduko txapelduna Arrasaten izango da asteburuan karateko tekniken ikastaro berezia emateko. Ikastaroa Oñatiko Aloña Mendi karate taldeak eta Arrasateko Saioa gimnasioak antolatu dute. Ikastaroan parte hartzeko Estatu osoko jendea etorriko da Arrasateko 20 karatekek hartuko dute parte eta Ikastaroa Musakolako kiroldegian emango da.

Jose Manuel Egea lau bider izan da Munduko txapelduna kumitean. 32 urteko kirolaria izatez madrildarra da eta txiki txikia zela hasi zen karatea egiten. Bere izena Guinnes errekor liburuan lau aldiz jarri dute lortutako emaitza onengatik. 1983an urrezko lehen domina lortu zuen Belgikan burutu zen Europako txapelketan. Harrez gero, dominaz bete du bere etxea. Azken garaipen handienetakoa 92an lortu zuen Granadan antolatutako Munduko txapelketa irabaziz.

Azken boladan ikastaroak ematen ari da Jose Manuel Egea. Izan ere, karateari buruz asko daki eta badu zer erakutsi. Saioa taldeko karatekek beraz, munduko txapeldunaren esanetara egoteko aukera izango dute zapatuan.



# Bikien bi munduak

Itxaro Zubillaga

**Anai-arreba bikiei buruz makina bat topiko ezagutzen da. Behin eta berriz entzun izan da batek egiten duena besteak egiten duela, nolabaiteko komunikazio berezia dagoela bien artean, bati gertatzen zaiona besteari ere gertatzen zaiola. Baina ideia horiek normalean ez datoz bat errealitatearekin, istoriatxo honetako 16 protagonistek adieraziko duten bezala. Zortzi bikote hauek ez dira herrian dauden bakarrak. Arrasaten 107 biki bikote daude, zaharrena 67 urtekoa, gazteena 6 hilabetekoa besterik ez.**


Idoia eta Irati, Arrasaten dauden 107 bikien artean bikote bat.

Bikien gainean hitz egiterakoan bi desberdintasun egin behar dira nahi eta nahiez. Obulu bakarrean jaiotzen diren bikiak sexu berdinekoak izaten dira, antz handikoak eta eskuko hatzamar eta hankako aztarnak ia berdinak izaten dituzte. Bi obuluren ernalketatik jaiotzen direnak sexu berdin edo desberdinekoak izan daitezke eta normalean antz txikiagoa dute elkarrekin.

Iaz Arrasaten lau biki erditze eman ziren, urteko bataz bestekoa lau edo bost bikotekoa izanik. Bikiak erditzekotan dagoen emakume batek ez du neurri bereziak hartu beharrik izaten haurdunaldian, zesareak ere ez dira ohikoak. Umeak txikiagoak izaten direnez, ondo kokatuta badatoz erditzea samurragoa izaten da. Bestalde beti pentsatu izan da bikiak izatea heredagarria dela, baina Aurora Ona Pediatrak dioenez "Bikiak ekartzea ez da heredagarria nahiz eta familia batzuk joera gehiago izan bikiak edukitzeko. Gainera bi belaunalditik bi belaunaldira gertatzen deneko ideia, ez da zuzena".

Arrasateko zortzi biki bikote hauek bat etorri dira euren artean antzik ez dutela esatean. Izaeraz oso desberdinak izateaz gain, fisikoki ere desberdin ikusten dira. Eva eta Silvia Zubizarretak esan dutenez bikien gainean topiko asko dago baina azkenean



## Maite eta Jaione Urrutia Lasagabaster

**Jaione eta Maite bikiak izan arren, izaeran eta gustuetan erabat desberdinak dira. Maite askoz ere burugogorragoa da, bere hitza nagusitzea gustatzen zaio eta ez du inoiz amore ematen, Jaione konformistagoa. "Txikitan antz izugarria genuenez nahastu egiten gintuzten eta kolore desberdineko alpargatak eramaten genituen" dio Maitek. Biak uste dute euren artean harreman oso berezia dagoela, beti batera ibiltzen dira. Gustoetan berriz, nahiko desberdinak dira.**



## Jesus eta Angel Arregi (33 urte)

**Jaio zirenean amak negar egin zuen. Guztira 7 anai arreba dira. Uste dute bikien artean telepatia dagoela, harreman estuagoa. Izaeraz Angelek karakter gogorragoa du, dominantea. Athletic-ak irabazten duenean Angelek ei du umore hobea. Arropetan taila berdina dute eta nesketan gustoa ere bai "Berdin zaigu beltzaranak, ile oriak edo ile gorriak". Anekdota bitxiena soldaduzkan gertatu zitzaien, Angeli tabernari izatea egokitu zitzaion, baina ez zenez batere trebea, postua aldatu zuten.**

adin berdineko bi anai edo arreba dira "adin berekoak garenez bizitzako etapa batzutan bien patua berdina izatea normala da baina beste sasoi batzutan ez du horrela izan behar. Genetikak izan dezake bere eragina, baina batez ere giro eta heziketa kontua da". Telepatia dagoenik ere ez dute uste; bai, aldiz, harreman berezia. Beste anai-arrebekin ez dagoen harremana sortzen ei da biki bikoteetan, beharbada txikitatik gauza eta giro berdinean ibili direlako sortu daiteke gertutasun hori.

Biki bikoteen artean txikiak direnean gustatu egiten zaie berdin jantzita joatea. Gurasoak askotan horrela jaztera behartuta daude; bestela haserretu egin daitezke eta. Nagusiagoek berriz esaten



## Idoia eta Irati Kortabarria (8 urte)

**Tibur eta Miren gurasoek susto galanta hartu zuten bikiak izan behar zutela jakitean. Boleto guztiak zituzten, Tibur bikia da eta Mirenen aitaren arrebak ere bai. Lehenengo Idoia jaio zen 2.200 gramorekin, Iratik 2.190 izan zituen. Gusto eta izaeraz oso desberdinak dira. Idoia langilea eta ordenatua ei da. Biei berdin janztea gustatzen zaie "ez bagara berdin janzten haserretu egiten gara". Batek egiten duena besteak ere egiten du "pertsona bakarra bezala dira, norabaitera joateko hirugarren baten beharra dute" dio amak.**



## Danel eta Josu Morales (6 urte)

**Itxuraz ez dute antz handirik eta izateko eran ere ez. Danel Josu baino askoz ere lasaigoa da. Gurasoek urduritasun handia hartu zuten bikiak zetozela jakitean, orain oso gustora daude. Ikastolakoak eta lagunek ez dituzte inoiz nahasten. Beraiek oso pozik daude bikiak izateagatik "Ondo konpontzen gara eta gutxitan haserretu, horrez gain, inoiz ez gara bakarrik egoten eta jolas egiteko beti biok gaude". Beste gauza batzutan berehala jakiten da nor den Josu eta nor Danel "nire ez zait lenteja purea gustatzen, Daneli bai".**



## Silvia eta Eva zubizarreta (30 urte)

**Biki asko izan dute familian eta orain ere hiru biki bikote lehengusu dira. Izaeran nahiko desberdinak direla diote, baita ikasketak aukeratzekoan ere, Evak Psikologia ikasi du eta Silviak Zuzenbidea. Arropak erosteko orduan zera diote "Denda berdinean sekula ez genuke arropa bera erosiko". Maitasun kontuan ez dira inoiz bat etorri. Dena dela, biek garbi utzi nahi dute bikiak adin berdineko bi ahizpa edo anai direla, horregatik dauden topikoak apurtzea gustatuko litzaieke.**



## Juan Carlos eta Alberto Calleja (27 urte)

**Bost anai-arreben arteko nagusienak dira. Izaeran berdintsu samarrak badira ere, gustuetan ez horrenbeste. Ez dute euren burua berdin ikusten. Itxuraz irrifartsuagoa Albertok dirudi, beti barrezka dagoelako. Berdin janztea ez zaie sekula gustatu, nahiz eta txikitan nahi eta nahiez jantzi behar. Gaisotasunik ez dute sekula batera hartu. "Ditugun anekdotak jendeak nahastu egiten gaituztelako dira. Biok tabernariak gara eta jendea nahastu egiten da izenaz, lagunek ondo bereizten gaituzte".**

dute ez zaiela gustatzen. Bestalde beti pentsatu izan da bikien artean bat dela nagusi baina erreportaiko lagunak ez daude ados eta topikotzat hartzen dute ideia.

Haserretu ere haserretzen dira baina berehala ei dute lagun egiteko joera. Gure protagonisten gurasoek aldiz, bi batera hezitzea gogor samarra dela adierazi arren,behin umeak jaiotzean poztasunak burukominak baino gehiago direla argi dute.

Bikien arteko topikoak eta errealitatea zer den jakiteko, adin desberdineko zortzi biki bikote arrasatear hauen bizitzako pasarte batzuk ezagutuko aukera. Bakoitza mundu bat, anekdota, bitxikeri eta istorio desberdinez osatutako mundua alegia.



## Gladis eta Haizea Urizar (5 urte)

**Oso berdinak dira. Ia ez dago nor den nor jakiterik, lagunek eta andereñoek askotan nahasten dituzte eta eurek barre egiten dute. Biak nahiko matrakak ei dira, baina amak dioenez Gladis izaera gogorrakoa denez, gehiago agintzen du. Jantzita ere gehienetan berdintsu joaten dira. Zazpi hilabetekin jaio ziren eta amari zesarea egin behar izan zioten. Agurtzanek bi zirela jakitean sustoa hartu zuela esaten du eta batera haztea gogorra egin zitzaiola. Orain oso gustora dago bi poxpolin hauekin.**



## Alexander eta Gorka Ugarte (6 hilab.)

**Abuztuaren 28an jaio ziren, San Agustin egunean, beraz sei hilabete dituzte. Alexander eta Gorka pisu berdinaz jaio ziren 2.700 gramo. Orain Alexander apur bat handiagoa da. Itxuraz ez dira hain berdinak, ezta izateko eran ere. Rufino eta Karmele gurasoak oso gustora daude bi txikitxoekin "Lana ematen dute baina entretenimendua da gehiago". Familian ez dute bikirik ezagutzen beraz sorpresa izan zen eurentzat. Alex eta Gorka oso irrifartsuak dira eta lotan daudenean oso formalak direla dio aitak.**





Eduardo Eraña eta Joseba Agiriano agertzen dira zutikako argazkian; ondokoan, berriz, besteak beste Dabid Arzamendi, Luis Martinez, Fertxu Aranburu, Jose Luis Mendiaratx eta On Jose Maria Arizmendiarrietaren aurpegiak ikus daitezke. Argazkiak 1953ko uztailaren 23an atera ziren, Gorbeako bidean.

Izan ere, aipatutako urtean Pako Azpiazu arrasatearrak bizitza galdu zuen Gorbean eta Arrasateko bere lagunek autobusa atera eta omenaldia eskeini nahi izan zioten, meza eta guzti. Izan ere, Pako Azpiazu, Mondrako jokalaria izanik, oso ezaguna zen Arrasaten. Itxura baten, behe-laino itxiaren eraginez Pako erori egin zen. Zorte txarrarekin erori gainera, jausterakoan harkaitz bat jo zuen eta buruarekin. Bertan hilotz gelditu zen. Urte berean gurutzea jarri eta egin zitzaion omenaldia.

Argazkien egilea J.M. Lasagabaster izan zen, beste asko bezala omenaldira joanda.

Arreta handiko sukaldea

UGARAN jatetxea

Giro abegikorra

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE


San Frantzizko xabier ikastola
Pertsonak formatzen ditugu.
Bi urtetik aurrera.
Zer nahi, huraxe izan!
Matrikula irekita otsailaren 1etik 20ra
SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA
INFORMAZIO SAILA
900 - 10 80 80
Otalora Lizenziatua, 8 Arrasate

# ZER NAHIAGO?

## Josune Gisasola

### "CD-Mania" dendakoa



- **Zenbat CD dituzue dendan?** 700.
- **Jendeak zein CD hartzen du gehien?** Makina Total 8, Rambo Mix, Eskixu, Def con Dos, Bon Jovi eta AC/DC.
- **Zer egiten duzu igandeetan?** Askotan lan, igandeetan denda zabaltzen dugu eta.
- **Zuri zein musikari gustatzen zaizu gehien?** Maria Carey, Luz Casal eta Mana.
- **Zer izan nahi zenuen txikitan?** Sukaldaria.
- **Zelan garbitzen duzu autoa?** Nik neuk eskuz garbitzen dut.
- **Zelako mutilak gustatzen zaizkizu?** Begi urdin edo orlegidunak eta altuak.
- **Boligrafo beltza ala urdina?** Urdina.
- **Zerk ematen dizu inbidia?** Azukrezko edozer gauzak. Gozozalea naiz.
- **Loteria tokatuko balitzaizu zer egingo zenuke?** EEBBetara bidaia bat.
- **Noizbait irabazi duzu zerbait?** Ez.
- **Postre bat?** Gazta tarta.
- **Eduki duzu hanka igeltsaturik?** Ez, baina eskua bai.
- **Euskadi Gaztea ala Los 40 Principales?** Los 40 Principales.
- **Zerk ematen dizu amorrua?** Norbaitek ahotsa jasotzea.
- **Ordenatua zara?** Bai.
- **Noiz moztu zenuen ilea azkenengo aldiz?** Urrian.
- **Azokara joaten zara?** Bai.
- **Zer daramazu poltsikoan?** Txanponak, metxeroa eta giltzak.
- **Barrionuevo erruduna da?** Baietz uste dut.
- **Telebistako aurkezle bat?** Pepe Navarro.
- **Antonio Flores musikari ona zen?** Bai.


# EUSKAL DANTZEN IKASTAROAK

"LORE GAZTEAK" DANTZA TALDEAREN ESKUTIK



## 1.) 10-14 urte bitartekoei zuzendua

- Otsailaren 14tik ekainaren 19ra arte.
- Asteazkenetan, 6,0etatik 7,30etara.
- Matrikula: 1.000 pta.

## 2.) 15 urtetik gorakoei zuzendua

- Martxoaren 16tik ekainaren 14ra arte.
- Ostiraletan, 7etatik 8,30etara.
- Matrikula: 1.000 pta.

**OHARRAK:** • Plaza mugatuak • BIKOTE MIXTOEK LEHENTASUNA IZANGO DUTE
• Izen emateak: Gazte Bulegoan (77 00 65)

ARRASATEKO UDALA

**Gazteria Saila**

6 urtetik 18 urtera arte.

# Hezkuntz Proiektu Osoa.



SAN VIATOR IKASTOLA



## Informazio Gehiagorako

**Esther Merino**
Zuzendari Orokorra

**Pilar Askasibar**
*Lehen Hezkuntzako*
Zuzendari Akademikoa
(6-12 urte)

**Idoia Urrutia**
*Bigarren Hezkuntzako*
Zuzendari Akademikoa
(12-16 eta 16-18 urte)

SAN VIATOR
IKASTOLA

Arrasate Pasealekua, 10
ARRASATE · (Gipuzkoa)

**Telefonoa:**
**79 04 11**

## *Maia Etxeberria*

# Antzerkia gurasoen heziketa medio

**Antzerkia espresio bidea da. Ideia sinple horretatik abiatuta, Almeneko Guraso Eskolak ekimen bitxia burutuko du otsailaren 14 eta 15ean. Ikasleen gurasoen aurrean, antzerkia egingo dute. Aktoreak gurasoak eta irakasleak izango dira. Helburua, guraso/irakasle eta seme-alaba/ikasleen arteko harreman eza ekiditeko kontuan izan beharreko pausoak isladatzea. Antzerki horri buruz hitzegiteko, Maia Etxeberria, Almeneko Orientazio Saileko arduraduna.**



**— Gurasoen zein kezkari erantzuten dio antzerkiak?**

— Ikasturte bukaeran 40 guraso eta irakaslek bilera bat egin genuen. Gure ikasle edo seme-alabekin eraginkorragoak nola izan planteatu genion gure buruari; hau da, urteak aurrera joan ahala balore batzuk lantzen aritu, baina lorpenik ez genuela ikusi genuen. Zerbait praktikoagoa egin behar genuela erabaki genuen eta zenbait ondorio atera. Konturatu ginen guztiz beharrezkoa zela irakasle eta gurasoek elkarrekin lan egitea, hau da, bi taldeen arteko elkarlan bat ematea. Era berean balore batzuk trasmititzeko guraso/irakasle eta ikasle/seme-alaben artean komunikazioa egotearen beharra ikusi genuen, gure neska-mutilen izatearen garapenerako ahaleginerako motibapena bultzatu beharrarekin batera. Hori guztia guraso guztiengana zabaldu nahi genuen. Azkenean, guraso talde bati antzerkia bide ona izan zitekeela bururatu zitzaion eta aurrera eramatea pentsatu genuen.

**— Zergatik antzerkia gurasoak hezitzeko medio bezala?**

— Antzerkia berez oso tresna deigarria da, gainera pentsa, irakasle eta gurasoek antzeztutako antzerki bat! Bestalde, antzezpenaren bidez gurasoek zuzenean ulertu ditzakete mezuak. Antzerki emanaldien ondoren, ihardunaldi batzuk antolatu nahi ditugu. Ihardunaldi horiek otsailaren 26 eta 27an izango dira eta bertan, antzerkian agertzen diren egoera eta kezkak sakonduko ditugu. Apirilean berriz, komunikazioari eta ahaleginerako motibapenari buruzko ihardunaldiak egingo ditugu Joaquin Garcia de Dios pedagogoaren laguntzarekin.

**— Ze egoera isladatzen dituzte antzerkiko bost sketch-ek?**

— Aita-ama, amona eta hiru seme-alabez osatutako familia bat da antzerkiko protagonista eta egunero klasean eta etxean gertatzen diren egoerak agertzen dira. Adibidez, semea goizeko 8etan egunkaria besapean dakarrela agertzen da etxean eta horrek gurasoak haserrarazten ditu. Egoera horiek aukeratzeko, ikasleei galdetu genien, hau da, eskolan eta etxean zein inkomunikazio egoerekin egiten duten topo galdetu genien. Ikasleek proposatutako egoerekin gidoilari batengana jo genuen, Andu Lertxundi idazlearengana. Gidoia egiteko proposamena gustora hartu eta bost sketch-etan banatutako antzerkia egin digu. Horietako hiru etxe inguruan, familian geratzen dira eta beste biak ikastolan.

**— Zenbatek hartzen duzue parte eta nork zuzendu du antzerkia?**

— Oso muntaia handia da, 50 gurasok eta irakaslek hartzen dugu parte, batzuk aktore gisa eta beste batzuk muntaiaz etabarrez arduratzen dira. Gainera, erdaraz eta euskaraz izango dira antzerkiak, beraz, bi aktore talde daude. Gu guztiok zuzentzen gaituena berriz, Jose Mari Sarasua da. Hemengo guraso izandakoa da eta antzerkian zaletua eta ibilitakoa gainera. Proposatu eta helburua azaldu orduko eman zuen baietza eta gurekin ari da lanean ordu pila bat sartzen. Oso ideia onak ditu eta gainera, kasting-a eta guzti egin zuen antzerkilariak erabakitzeko.

***"Egoerak aukeratzeko ikasleei galdetu genien, etxean zein inkomunikazio egoerekin egiten duten topo galdetuz"***

# Europako balletik onena Arrasaten

Europako ballet talderik onenaren bisita izango dugu bihar Amaia antzokian, Pragako Ganbara Balletarena hain zuzen. Hiru koreografia eskainiko ditu taldeak, horietako bat Pavel Smok-ek, ballet talde honen fundatzailearena. Beste biak Petr Zuska koreografoak eginak dira, 1993tik Pragako Antzoki Nazionaleko Balletean parte hartzen duen artistarenak.

Hamar dantzarik dantzatuko dute Amaia antzokiko eszenatokiaren gainean eta elkarrean artean txandakatuz, "Horquitas", "Stabat" eta "Seúl" koreografiak eskainiko dituzte.



Larunbatean, gaueko 10etan izango da ballet emanaldia.

**Mundu osoan ezaguna**

Pragako Ganbara Balleta Txekiar errepublikan eta Pragan ezezik, mundu osoan da ezaguna. 1980. urtean sortu zuen Pavel Smok koreografoak eta geroztik nazioarteko jaialdi askotan publikoaren saria irabazi du, Nancy eta Budapesten adibidez.

Gaur egun mundu osoan zehar bira egiten ari da taldea Txekiar errepublikako gobernuak subentzionatuta. Taldearen errepertorioa oso zabala da; balet dramatikoak nahiz musika komediako konposizioak egiten ditu.

Ballet taldea musutruk etorriko da Arrasatera. Emanaldi bakoitzeko taldeak 4 milioi kobratzen dituela jakinda, kategoriako emankizuna izango dela pentsatu behar da. Sarrerak takilan salduko dira; Arrasate Musikaleko bazkideentzat 2.000 ptatan eta gainontzekoentzat 3.000an. Emanaldia bukatu ondoren, Pragako taldeko partaideek Karkabal elkartean afalduko dute.

MUSIKA

## Arrasate Kantari jaialdia ia prest

Otsailaren 16an amaitzen da AEDk eta herriko beste hainbat taldek antolatzen duten "Arrasate Kantari" jaialdian izena emateko epea. Esther Apaolazak, AEDko partaideak adierazi duenez, momentuz 5 taldek eman dute izena, baina azken orduan apuntatuko denik ere egongo dela esan du.

Isa Gallastegik, S.F.X.eko irakasle eta jaialdiko antolatzaileetariko baten esaten, "oso interesgarria deritzot era honetako jaialdiak bultzatzeari". Aintzinako kantak berreskuratzeko modu egokia da, hauek ezin dira galdu eta." Dena den jaialdian kantatzen diren abesti zaharrak gazteek ezagutzen ez dituztenez, komunikabideek zerbait egin beharko luketela aipatu du ere.

Martxoaren 23an ospatuko den jaialdia Juanito Saizarrek aurkeztuko du eta behar bada izango du honek laguntzailerik, antolatzaileak Ane Igartiburu ekartzeko ahaleginetan ari dira eta.



# GURE ETORKIZUNA DELAKO, HAZI ETA HEZI ZEURE HAURRAK EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAN




ARRASATE EUSKALDUNTZEN
ARI GARELAKO...
ETORKIZUNA EUSKARAZ
DATORRELAKO....

...ARDURATU ZUEN HAURRAK
EUSKARAZ IKAS DEZATEN!

ARRASATEKO UDALA

AED ELKARTEA

## Arrasate Telebista (ATB)

# Sei urte gure artean

Otsailaren 13an, orain sei urte, egin zuen bere lehen emisioa ATBk. Telebistaren jaiotza ez zen, dena den, ezusteko zaparradak bezalakoa izan; antz gehiago zuen, behelainoaren ondoren somatzen diren eguzki printzekin. Emititzen hasi zenerako ondo pentsatuta zegoen guztia.

Orain sei urteko otsailean kokatu eta hilabete batzuk atzera eginez gero, AEDren komunikabideetarako sailekoen edozein bilera aurki daiteke. Arrasate Pressek herrian harrera polita izan zuela eta zerbait gehiago egin beharraz hitzegiten zen horrelakoetan. Landu ondoren irrati baten proiektua aurkeztu zitzaion Eusko Jaurlaritzari, baina frekuentzi banaketan ez zen kontuan hartu arrasatearren eskaera. Bada ez bada ere, telebistaren egitasmoa abian zegoen ordurako. Egitasmoa sakonduz eta era berean zabalduz, herrian euskara bultzatzearen alde lanean ziharduen hainbat jende eta erakunderekin asteroko bilerak hasi ziren. Uzta oparoa eman zuten bilera haiek: herri-telebistaren proiektua.

Hazitako haurra Udalari aurkeztu zitzaion, honek bedeinkapena eman ziezaion. Eta baita eman ere, uztailaren 17ko plenoan Arrasateko udalak ATBko proiektua onartu zuen eta. Ospitale Zaharrean kokatu ondoren, frogetan aritu ondoren, lantaldea antolatu ondoren, grabaketak egin ondoren... otsailean ATB airera.

Programa asko, gai ugari eta aurpegi gehiago irten da ordutik Arrasateko telebistan, batzuk famatu egin arteraino. Opor egunak eta aberiaren bat edo beste alde batera, egunez egun arrasatearrek etxean eduki dute beraien telebista, eguneroko berriak ahalik eta ondoen ematen. Programa interesgarririk ere ez da falta izan, bertako langileen zein musutruk etorri ohi diren kolaboratzaileen borondate onari esker.

Horrelakoetan betik esan ohi den bezala: eskerrik asko eta zorionak guztioi!

## Puntako tresnak erregionaleko egoitzan

Inorentzat eta ezerrentzat ez dira sei urte alperrik pasatzen. Haurrak oinez ibiliaz ikasten duen bezala, ATBk eguneroko lanari esker eman ditu eta ematen ditu aurrepausoak heldutasunaren bidean, erruetatik ikasiz. Ez da oraindik telebista heldu bat, baina dagoeneko utzi dio mukizu izateari.



**ION ALDANONDO**
ATBko arduraduna

Froga-gisa hainbat datu aurkez daiteke, batez ere aurrerakuntza teknikoen aldetik begiratuta, kazetari, kolaboratzaile, teknikari eta abarren prestakuntza eta borondatea betidanik antzerakoak izan dira eta. Asmoa kalitatezko telebista egitea denez, hasiera hasieratik oso garbi ikusi zen ATBn zeuden muga teknikoak gainditzeko ezinbesteko premia. Beti ere oso kontuan hartuta telebista tresnen prezioak eta ARKOren baliabide ekonomiko urriak. Zentzu horretan ulertu behar dira 6 urte hauetan egin diren aldaketak. Super VHS sistemaz ekin zion ATBk bere ibilbideari, sistema erdi-domestikoa, edonork bere etxean eduki dezakeenaren antzerakoa. Ondorengo inbertsioek jauzi kualitatibo galanta ekarri zuten, aipatutako sistema alboratu eta Betacam izenekora pasatuz; hau da, sistema erdi-domestikotik sistema profesionalera. Labur esateko: irudien kalitatea ikaragarri hobetzea lortu zen. Hirugarren aldaketa garrantzitsu bat ere gertatu da orain gutxi, irudiarena hobetuta zintzilik geneukan eta soinuaren kalitatearen hobekuntza. Tresneria berritu eta hor ere aurrerapausu nabarmena egin dugu.

Aurrera begira, jarrera bera eduki behar dugu, hobetzekoa. Eta hor badago ez ARKOk eta ez ATBk berez konpondu ezin duten arazo bat: egoitzarena. Puntako tresneria daukagu, baina erregional mailako egoitza, egunetik egunera egoera kaskarragoan gainera. Baldintza egokiak behar du tresneriak, egoitza honek, xarmangarria izanda ere, inondik inora ez dituenak.

Eskuartean daukat, Arrasate Pressek orain 6 urte, ATBri buruz idatzi zuen lehen erreportaia. Zati batean horrela dio: “Azkenean, eta behin behinekoz bada ere, Ospitale Zaharreko kapera eta inguruko gelak aukeratu ziren”. Dagokionak ulertuko du, behin betirako bada hobeto.

## · ESAERA ·

*"Ez eztabaidatu sekula. Jendearekin zaudela norbait ez badator bat zure iritziarekin, aldatu gaia"*

*DISRAELI*

## · JEROGLIFIKOA ·




**Non dago Einstein?**

## · GURUTZEGRAMA ·



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1.Beti tonoa bere duena. 9. Ase denaren egoera. 10. Geriza. 11. Musika eskalako 6. nota. 12. Gaixo. 13. Traidore. 15. Pintore barroko flandestarra. 16. Alfabetoko 11. letraren izena. 17. Kutxa estaltzeko gaineko zatia. 19. Eusko Elkartasuna. 20. (Ald.) Musulmanen liburu sakratua.

**Bertikalak** 1.Uranga, Superbateko aurkezlea. 2. Gorputzez hegaztirik handiena. 3. (Ald.) Deitura. 4. Oiloak lo egiteko haga multzoa. 5. Berriketa luze eta aspergarria. 6. Osmioa. 7. Baliogabe. 8. (Ald.) Lizartzako abeslari itsua. 14. Errusiako subiranoek zuten tituloa. 18. Italiako ibairik garrantzitsuena.

## · HOROSKOPOA ·

**Aries** Lanean hasten ez bazara eskean irten beharko duzu.

**Taurus** Barre egiten hasi baino lehen hortzak garbitu.

**Gemini** Ez zara munduko politena baina ez etsi.

**Cancer** Kilikagarria izaten da zure ondoan egotea. Zergatik?

**Leo** Laster zure bizitzako sorpresa onena jasoko duzu.

**Virgo** Paperezko hegazkin gehiago? Piloto frustatua ala?

**Libra** Ile motz horrekin azalore itxura duzu.

**Scorpio** Badaezpada aterkia erosi, euri gehiago egingo du eta.

**Sagitarius** Beti ametsetan. Errealitatetik urrun bizi zara.

**Capricorn** Internet bidez bikotea aurkitzeko aukera izango duzu.

**Aquarius** Ordenagailuak baino buru handiagoa duzu.

**Piscis** Hurrengo hilabetea ondo hasiko duzu baina bukatu...


Zalantzarik baldin baduzu, deitu! Dohainekoa da.

Hezkuntz sistema berria, LOGSE, zure seme-alaben etorkizuna...

SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA
INFORMAZIO SAILA
900 - 10 80 80

Otalora Lizenziatua, 8 Arrasate

## · TELEBISTAREN TXOKOA ·



# *"Nor Nori Rock"*en Euskal Herriko eta atzerriko musika

Kaitin eta Liernik lau musika talderen doinuak ekarriko dituzte datorren asteko Nor Nori Rock musika programara. Sarasua anaiek Amaia Antzokian eskeinitako "Fauna Txiki Bat" diskoaren bertso musikatu sorta bat, Sorotan Bele taldearen bi kanta eta Sepultura heavy taldearen musika entzungai izango dira datorren asteazkenean. Hauez gain, Gasteizeko Betagarri taldearen elkarrizketa ere eskainiko dute, baita talde honen hainbat kantu ere.

## · KOMIKIA ·




Zaguzar.

**Etxe-Aundi**

1. PLATERA
*Bi plater aukeran*

*Etxeko gozoteria*

2. PLATERA
*Haragia edo arraina*

*Etxeko ardo gorria eta beltza*

*Kafea*

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

## · SOLUZIOAK ·

**Horizontalak:** 1. Monotono. 9. Asetasun. 10. Itzal. 11. La. 12. Eri. 13. Etoi. 15. Rubens. 16. Ka. 17. Tapa. 19. EA. 20. Narok.

**Bertikalak:** 1. Maier. 2. Ostruka. 3. Neziba. 4. Ota. 5. Talenta. 6. Os. 7. Nulo. 8. Onaixak. 14. Tsar. 18. Po.

**Jerogilifikoa:**
Lurpean.

## · PROGRAMAZIOA ·

ATB

**9 Ostirala**
13.30etan
**Albiste aurrerapena**
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
9.30etan
**Astebete**
**Gaia: "Zer da Enpresa Berritzaileen Zentrua?" Eibarko Enpresa Berritzaileen Zentruan egindako erreportaia ikusgai Astebete saioan, martxoan Arrasaten eratuko dena zelakoa izango den ezagutzeko.**

**12 Astelehena**
13.30etan
**Albiste aurrerapena**
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Mondrasport**

**13 Asteartea**
13.30etan
**Albiste aurrerapena**
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Barrelekaixoka**

**14 Asteazkena**
13.30etan
**Albiste aurrerapena**
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Nor Nori Rock**

**15 Osteguna**
13.30etan
**Albiste aurrerapena**
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**"Elkartean" saioa, Tomas Axpek eta Karmele Zuazubiskarrek aurkeztuta. Elkartea: Santa Marina**

**16 Ostirala**
13.30etan
**Albiste aurrerapena**
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Astebete**

## Etxebizitzak

• **Irakaslea pisu txiki baten baten bila dabil.** Jantzita ez badago ere balio du. Tfnoa: 79 01 32 (Utzi mezua).

• **Erdialdean pisua salgai.** Tfnoa: 79 42 13.

• **Logela alokagai.** Tfnoa: 79 42 13.

• **Bi ohedun gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.

• **Labastidan etxe adosatua salgai.** Bi solairu, garaje eta txokoz. Berogailua eta erdi jantzita. Tfnoa: (941) 12 33 75. Arratsaldez.

• **Mutil bat gela baten bila dabil Arrasaten.** Tfnoa: 71 42 00, 230 luzapena. Pablo.

• **Pisua alokatzen da Arrasaten.** Tfnoa; (94) 682 04 78.

## Lana

• **Geriatria eta klinika laguntzaileak** arazoak dituzten umeak eta nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 09.

• **Ingelesezko klase partikularrak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 40 06.

• **Arratsaldez edozein lanerako** neska euskalduna prest. Tfnoa: 79 81 25. Dei egin gaueko 10etatik aurrera.

•**Ileapaintzaile esperientziadun** diplomaduna lana egiteko prest. Tfnoa: 79 70 45.

• **Dekorazio diseinatzailea behar da.** Tfnoa: 79 21 26.

• **Komertziala behar da.** Tfnoa: 79 21 26.

• **Asteburutan kanguro lana** egingo nuko. Tfnoa: 79 73 01. Olga.

• **Euskara, gaztelania** eta ingelesezko klase partikularrak behar dira. Tfnoa: 79 25 49. Iluntzean. Gorka.

• **Kontabilitate eskolak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 39 11. Goizez dei egin.

• **Neska gertu umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 77 94.

• **Euskara eta gaztelaniako** itzultzailea behar dugu. Tfnoa: 77 04 98.

• **Bulegoak, etxebizitzak,** edo atarteak garbitzeko gertu. Tfnoa: 77 09 56.

• **Andra gereontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.

• **Neska gertu arratsaldez umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.

• **Irlandatik etorri berria** ingelesezko klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 21 56.

• **Neska prest umeak zaindu** edo etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.

• **Bi neska gertu larunbatetan** etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 38 48 edo 77 01 39.

• **24 urteko neska euskalduna** etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Esperientziaduna eta informeekin. Tfnoa: 79 37 82. Pili.

• **Esperientziadun neska** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 71 44 27. Rakel.

• **Umeak zaindu edo** etxeko lanak egiteko neska gertu. Tfnoa: 79 74 92.

• **Neska gaztea gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 63 18.

• **Ileapaindegian** diplomatua lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 63 18.

• **Neska bat garbiketak** (etxeak, bulegoak, lokal komertzialak, tabernak...) edo umeak zaintzeko prest Tfnoa: 78 85 40.

• **Neska prest pertsona nagusiak** zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 87 47.

## Salerosketak

• **Montesa Cota 3-10 trialeko motorra saltzen dut.** Tfnoa: 79 97 72.

• **Trabesiako skia egiteko botak salgai.** Koflach Veluga 43-44 zenb. hiru aldiz erabilita. 12.000 pta. Bolle MicroEdge II eguzki betaurrekoak ski edo txirrinduan ibiltzeko aproposak. 4.000 pta. Tfnoa: 79 02 10. Asteburutan.

• **Ski ekipo osoa salgai.** Salomon 875 fijazioak, Volk Super Competition tablak eta Koflach botak. Tfnoa: 79 47 48. Gaueko 8.30etatik 9.30etara.

• **Etxeko altzariak,** elektrogailuak eta egurrezko minbrezko gauzak salgai. Tfnoa: 77 09 66. Arratsaldez eta gauez. Utzi mezua.

• **"De brie" artzai txakurkumeak salgai.** Marroiak edo beltzak. Tfnoa: 77 08 51.

• **COTA 311 oso egoera onean** dagoen motorra salgai. Kaskoa eta botak ere bat. Tfnoa: 79 50 23. Arratsaldeko 8.30etatik aurrera.

• **Kristalezko apalak salgai.** Hiru pisukoak. 30.000 pta. Dendetarako balio dute. Tfnoa: 79 65 31.

• **Eskulanak egiteko larrua salgai.** Tfnoa: 79 65 31.

• **Motorrean ibiltzeko** larruzko trajea salgai. Osorik edo bi zatitan saltzen dira. Prakak 32 tailakoak eta kazadora 40koa. Gauez. Tfnoa: 78 87 47.

• **Casio CT-700 teklatua salgai.** Tfnoa: 79 05 75.

• **Eskritorioko aulkia salgai.** Tfnoa: 79 05 75.

• **Español arrazako zaldi** sementala daukagu. Interesatuek dei egin 79 23 36 edo 79 46 75 tfnora.

# Aste Gazte

### Lana

• Ordiziako Udalak, hainbat lanpostu kaleratu du. A) Drogomenpekotasun teknikari bat. Psikologian edo Soziologian lizentziatua. 4. hizkuntz eskakizuna. B) Gazteen Informatzaile bat. Goi batxilergoa, LH2 edo baliokidea. 3. hizkuntz eskakizuna. C) Gizarte Hezitzaile bat. Goi Batxilergoa, LH2 edo baliokidea. 3. hizkuntz eskakizuna. D) Udaltzain bat. Eskola Graduatua, LH1 edo baliokidea. 2. hizkuntz eskakizuna. Lan deialdi guztien epea: otsailak 14.

### Ikastaroak

• "Euskal Dantzak" ikastaroak, Lore Gazteak taldearen eskutik. A) 10-14 urte bitartekoei zuzendua. Otsailaren 14tik ekainaren 19ra. Asteazkenetan, 6.30etatik 7.30etara. B) 15 urtetik gorakoei zuzenduta. Martxoaren 16tik ekainaren 14ra. Ostiraletan, 7etatik 8.30etara.

• Deba Bailarako euskara eta kirol zerbitzuak, "Txirrindularitza zuzendari ikastaroa euskaraz" antolatu du. Ostiral arratsetan eta larunbatetan. Prezioa: 9.000 pta.

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak, hastapen eta hobekuntzako "Mendi eski" ikastaroa antolatu du Panticosa-Wallon-en. Otsailak 24-25 eta martxoak 2-3 asteburutan. Aurtengo Mendi Federatu Txartela edukitzea derrigorrezkoa da. Prezioa: 26.000 pta, 14-20 urte bitartekoei %65ko beherapena.

### Lehiaketak

• "Errenteria hiriko II. bideo lehiaketa". 16-30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute. Jatorrizko lanak VHS edo SVHS formatoan aurkeztuko dira gehienez 30 minutuko iraupena izanez. Epea: apirilak 12.

***"Arima zahar jaio eta gaztetu egiten da. Horra hor bizitzaren komedia. Gorputza gazte jaio eta zahartu egiten da. Horra hor bizitzaren tragedia.***

**OSCAR WILDE**

arrasateko udaleko gazte-zerbitzua

**Informazio gehiago:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**Tfnoa: 77 00 65**

# ARKAUZ



## altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20
Tfnoa. / Faxa: 79 23 51

## sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaian

Betiko muntaiak

FAGOR

Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxa: 77 04 55






## elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert

banatzaile ofiziala

Asuncion,1 Tfnoa. / Faxa: 77 10 97

# *Aretxabaleta*





# Gaur bizitza zuk gidatzen duzu.

**Mégane eta Mégane Cupé berriak, plazerra eta segurtasuna batzen dituzten modeloak.**

Mégane

**MECAk otsailaren 14ean aurkeztuko du arratsaldeko 7etatik aurrera. Zatoz RENAULTen azkenaz gozatzera!**

RENAULT

MECA